




# The Digital Language

## Diversity Project



**Euskara — hizkuntza digitala?**



# Aurkibidea

1. Ikuspegi orokorra.....	5
2. Hiztunen identitatea: sexua, adina eta jatorria .....	6
3. Euskara-gaitasunaren autoebaluazioa .....	8
4. Euskararen erabilera digitala.....	10
4.1. Euskarazko baliabide digitalak.....	12
4.2 Euskara sare sozialetan.....	13
4.3 Euskaraz lokalizatutako zerbitzu/interfaze digitalak .....	14
5. Ondorioak.....	16
6. Esteka esanguratsuak.....	17
7. Bibliografia .....	17
Erantzuleen ohar batzuk .....	18

## Inprimategi-zigilua

*Reports on Digital Language Diversity in Europe* | Claudia Soria, Irene Russo, Valeria Quochi (editoreak)

*Euskara — hizkuntza digitala?* | Antton Gurrutxaga Hernaiz eta Klara Ceberio Berger (egileak)

Lan hau hizkuntza-aniztasun digitalaren ([www.dldp.eu](http://www.dldp.eu)) proiektuaren barruan egin da; proiektu hori Europar Batasunak finantzatzen du, eta Erasmus+ programaren barruan kokatzen da (hitzarmen-zk.: 2015-1-IT02-KA204-015090)

© 2017

Lan honek Creative Commons Attribution 4.0 International lizentzia du.



Diseinua: Eleonore Kruse

### Erantzukizun-ukatzea

Argitalpen honek egilearen ikuspegia bakarrik jasotzen du, eta Erasmus+ National Agency erakundeak eta Batzordeak ez dute erantzukizunik izango bertan agertzen den informazioaz egiten den ezein erabileraren gain.

# Irudi-oinak

1. irudia. Jaiolekuaren araberako banaketa.....	6
2. irudia. Bizitokiaren araberako banaketa.....	6
3. irudia. Inkestaren informazio-iturria .....	7
4. irudia: Erantzuleen adina .....	7
5. irudia. Erantzuleen generoa .....	7
6. irudia. Euskara biziberritzeko jarduerak .....	7
7. irudia. Euskararekiko inplikazio profesionala.....	7
8. irudia. Ama-hizkuntza.....	8
9. irudia. Euskararen ezagutza .....	8
10. irudia. Euskararen erabilera testuinguru instituzionaletan.....	9
11. irudia. Euskararen erabilera testuinguru instituzionaletatik kanpo.....	9
12. irudia. Euskararen garrantzia.....	9
13. irudia. Euskararen erabilera Interneten .....	10
14. irudia. Euskarazko jarduerak Interneten .....	10
15. irudia. Euskararen erabilera komunikazio elektronikoan.....	11
16. irudia. Euskararen erabilera-maiztasuna komunikazio elektronikoan.....	11
17. irudia. Euskararen adierazpenak .....	11
18. irudia. Euskarazko baliabide digitalak.....	12
19. irudia. Euskarazko Wikipedia.....	12
20. irudia. Euskarazko Wikipediaren erabilera .....	12
21. irudia. Euskararen erabilera sare sozialetan .....	13
22. irudia. Euskararen erabilera-maiztasuna sare sozialetan.....	13
23. irudia. Euskarazko Internet-zerbitzuak .....	14
24. irudia. Softwarea euskaraz.....	15
25. irudia. Euskarazko softwarearen erabilera .....	15



# 1. Ikuspegi orokorra

Europako hizkuntza-aniztasuna nola islatzen da baliabide berrietan? Eskualdeetako hizkuntzek eta hizkuntza gutxituek ekarpenik egiten al diote EBko hizkuntza-aniztasun digitalari eta, hala bada, zenbateraino? Posible da eskualdeetako hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen hiztunek hizkuntza horietan izatea beren bizitza digitala?

Europako hizkuntza gutxituen hiztunek aukera digitalen inguruan dituzten benetako premiei buruz egindako lehen inkestaren emaitzak aurkezten ditugu txosten honetan. Inkesta hori hizkuntza-aniztasun digitalaren proiektuan (DLDP) egindako lanaren barruan kokatzen da; proiektu hori Erasmus+ erakundeak jarri zuen abian 2015eko irailean, eta hiru urte iraungo du.

DLDP proiektuaren xedea hizkuntza gutxituen hiztunei laguntzea da, onlineko eduki digitala sortu, partekatu eta berrerabiltzeko gaitasun intelektual eta praktikoak garatu ditzaten; era berean, presentzia digital txikia duten eta, ondorioz, euskarri eta gailu digitaletan erabiltzeko aukera murriztua duten hizkuntza gutxituak indartzeko gidalerro orokorrak eta jardunbide egokiak finkatzea ere badu helburu proiektuak. Garapen digital maila desberdinak dituzten Europako lau hizkuntza gutxituren inguruan eratu da proiektua (euskara, bretoiera, kareliera eta sardiniera), eta horrek aukera ematen du konparazio bat egin eta jakiteko eduki digitala eskura egoteak zenbaterainoko eragina duen hizkuntza horien erabilera digitala sustatzeko orduan eta hizkuntzan oinarrituriko aplikazio digitalak garatzeko orduan.

Hizkuntza horien hiztunen berariazko premiak eta berezko jokabidea ulertzeko asmoz, 2016ko udaberrian inkesta bat egin genuen, hiztunek beren hizkuntza digitalki zenbat erabiltzen duten jakiteko eta hizkuntza horretan dauden baliabide eta zerbitzu digitalak zenbateraino ezagutzen dituzten jakiteko. Ia 2.000 hiztunek hartu zuten parte inkestan, eta orain emaitzak aztertzeke aukera dugu, aurrerago zer urrats egin behar diren finkatzeko.

Inkesta Interneten bidez plazaratu zen, eta, bereziki, sare sozialak erabili ziren hura zabaltzeko; hala, inkesta erantzun zuten pertsonen profila eguneroko bizitzan hizkuntza pixka bat gutxienez erabiltzen duen erabiltzaileari dagokio. Hori kontuan hartu behar da emaitzak aztertzeke garaian.

## 2. Hiztunen identitatea: sexua, adina eta jatorria

Euskararen azterketan, 428 erantzun jaso genituen.

Jende gehienak Twitter bidez izan zuen inkestaren berri. Datu horrek berretsi egiten du euskal hiztunen komunitate bizia dagoela Twitterren, beste estatistika batzuek ere erakusten dutenez (ikus 21. eta 22. irudiak).

Laginak adin-talde ugari eta modu orekatuan biltzen ditu; hiru talde handienak 30-39, 40-49 eta 50-59 adin-tarteak dira. Horrek adierazten du inkesta erantzun duten pertsonen % 22 inguru 30 urtetik beherakoa dela.

Sexuari dagokionez, nahiko datu-multzo orekatua dugu, gizonezko hiztunak pixka bat gailentzen diren arren (% 52,7).

Aktibismoari dagokionez, parte-hartzaile gehienek (% 63,5) hizkuntzaren aktibista gisa definitzen dute bere burua, eta hizkuntza biziberritzeko jardueretan parte hartzen dute, hala nola hizkuntza-habiatan, ekimen kulturaletan, etab. Aktibista diren horietatik, % 39,3k adierazi dute ez dutela inolako harreman profesionalik euskararekin. Ondorioz, euskara biziberritzen laguntzen duten parte-hartzaileen ehuneko handi bat profesionalak dira.

Jatorriari dagokionez, 1. irudian inkesta honetan parte hartu dutenen jaioterrien banaketa geografikoa ikus daiteke; 2. irudian, berriz, bizilekuen banaketa ikus daiteke.




1. irudia. Jaiolekuaren arabeko banaketa.




2. irudia. Bizitokiaren arabeko banaketa.

### Nola izan duzu azterketa honen berri?




3. irudia. Inkestaren informazio-iturria.

### Erantzuleen adinaren banaketa




4. irudia: Erantzuleen adina.

### Generoa




5. irudia. Erantzuleen generoa.

### Parte hartzen duzu euskara biziberritzeko edo babesteko jardueraren batean?



6. irudia. Euskara biziberritzeko jarduerak.

### Euskararen arloan lan egiten duzu profesionalki?



7. irudia. Euskararekiko inplikazio profesionala.

### 3. Euskara-gaitasunaren autoebaluazioa

Inkesta erantzun dutenen % 40,7k euskara dute ama-hizkuntza, eta % 35,4 elebidunak dira haurtzarotik. % 24k gaztelania dute ama-hizkuntza; frantsesa, ordea, gutxi batzuek baino ez.


Euskara-gaitasunari dagokionez, parte-hartzaile gehienek adierazi dute euskararen ezagutza oso sakona dutela, bereziki gaitasun pasiboari dagokienez.

Testuinguru instituzionalean eta handik kanpo erabiltzeari dagokionez, parte-hartzaileak oso aktiboak dira, oro har. Parte-hartzaile gehienek hizkuntza egunero entzuten eta hitz egiten dute, ia maiztasun berarekin bi testuinguruetan; erabilera idatzia apur bat txikiagoa da testuinguru ez-instituzionalean, baina hori espero izatekoa da. Ildo horretatik, euskara oso gutxitan edo inoiz ez dutela erabiltzen dioten hiztunen kopurua oso txikia da.

Beraz, ikus dezakegunez, erabiltzaile gehienek maila altua dute, bai hizkuntza-gaitasunari dagokionez, bai hizkuntza-erabilerari dagokionez.


Balio-sistemari dagokionez, hizkuntzarekin lotzen diren balio sendoenak lehena eta hirugarrena dira, hau da, herrialdearen historiarekin eta identitate pertsonalarekin zerikusi handiena dutenak. Azpimarratzekoa da euskarari komunikazio-tresna gisa ematen zaion balioa ez dagoela urrun aipaturiko bi balio horietatik, eta balio instrumentalaren gaineko adostasun-maila, txikiena izanik ere, ez dela hutsala.

**Gaztelaniarekin edo frantsesarekin duzun erlazioa kontuan hartuz, nola deskribatuko zenuke zeure burua?**



8. irudia. Ama-hizkuntza.


#### Zure ustez, zer euskara-maila duzu?



9. irudia. Euskararen ezagutza.




### Nola eta zenbat erabiltzen duzu euskara zure eguneroko jardunean testuinguru instituzionaletan? (adibidez, eskolan, lantokian, eta abarretan)



10. irudia. Euskararen erabilera testuinguru instituzionaletan.


### Nola eta zenbat erabiltzen duzu euskara zure eguneroko jardunean testuinguru instituzional batetik kanpo?



11. irudia. Euskararen erabilera testuinguru instituzionaletatik kanpo.

### Euskara garrantzitsua da...

- 1) ... eskualdeko/herrialdeko historiaren eta kulturaren adierazle delako.
- 2) ... nire haurtzaroko / nire gurasoen / nire aitona-amonen hizkuntza delako.
- 3) ... nor naizen eta nongoa naizen erakusten didalako.
- 4) ... nire komunitateko kideekin komunikatzeko tresna bat delako.
- 5) ... aukerak zabaltzen dituelako (lana, ikasketak, informazioa...).



12. irudia. Euskararen garrantzia.




## 4. Euskararen erabilera digitala

Badirudi inkestako parte-hartzaileek asko erabiltzen dutela euskara komunikazio elektronikorako (% 97). Mezu elektronikoak eta testu-mezuak idazteko, txatetan edo bat-bateko mezularitzako programetan (hala nola Whatsapp, Google, Snapchat, Skype, Facebook, Messenger eta abar) erabiltzen da. Blog pertsonala dutela adierazi duten parte-hartzaileen kopurua aipagarria da.

Komunikazio elektronikorako gehien erabiltzen diren tresnak bat-bateko mezularitzako aplikazioak direla ematen du; haien atzetik, posta elektronikoa arrunta eta testu-mezuak/SMS erabiltzen dira gehien.


Parte-hartzaileek oso argi adierazi dute Interneten euskara erabiltzeko aukera izan nahi dutela, beren eguneroko bizitzaren barruan. Adostasun handia dago euskara Interneten erabili ezin den edo erabiltzea merezi ez duen hizkuntzatzat ez jotzeko orduan. Adostasunaren ikuspuntutik, aniztasun handiena baieztapen honen inguruko erantzunetan egon da: gaztelania erabiltzea euskara erabiltzea baino errazagoa da. Parte-hartzaileen ia heren batek uste du gaztelania erabiltzea errazagoa dela.

### Inoiz euskara erabiltzen duzu Interneten?



13. irudia. Euskararen erabilera Interneten.

### Baietz erantzun baduzu, nola?




14. irudia. Euskarazko jarduerak Interneten.

### Inoiz erabiltzen duzu euskara komunikazio elektronikoan?




15. irudia. Euskararen erabilera komunikazio elektronikoan.

### Nolako maiztasunez erabiltzen duzu euskara komunikazio elektronikoan?



16. irudia. Euskararen erabilera-maiztasuna komunikazio elektronikoan.

### Zenbateraino zaude ados adierazpen hauekin?




17. irudia. Euskararen adierazpenak.

## 4.1. Euskarazko baliabide digitalak

Euskaraz badira zenbait baliabide digital eskuragarri. Webguneak, blogak, foroak eta smartphoneetako aplikazioak erabiltzen dira gehien; aldiz, hiztun gutxiak daki Interneteko telebista, streaming audioa eta bideoa ere badirela.


Euskarazko Wikipedia ere badago, eta ia parte-hartzaile guztiek (% 97) badakite badagoela; hala ere, parte-hartzaileen % 11 bakarrik dira erabiltzaile aktiboak eta eduki-sortzaileak. Gehienek kontsultatzen dute (% 81), eta gutxi batzuek bakarrik ez dute inoiz erabiltzen (% 8).

### Zuk dakizula, baliabide digital hauetatik zein erabil daitezke euskaraz?




18. irudia. Euskarazko baliabide digitalak.

### Ba al da Wikipedia euskaraz?



19. irudia. Euskarazko Wikipedia.

### Baldin badago:



20. irudia. Euskarazko Wikipediaren erabilera.


## 4.2. Euskara sare sozialetan

Euskal hiztunek asko erabiltzen dituzte sare sozialak, eta esparru interesgarri bat dira hizkuntzaren idatzizko erabilera informalerako.

Facebook da gehien erabiltzen den sare soziala, eta Twitter zerbait gutxiago. Aipagarria da parte-hartzaile gehienek euskara erabiltzen dutela Facebooken eta Twitterren, eta erabilera hori aktiboa dela gehienbat. Beste sare sozialak nabarmen gutxiago erabiltzen dira, baina euskararen erabileraren ehunekoa gutxi gorabehera antzekoa da, LinkedIn-en izan ezik. LinkedIn-en euskara erabiltzen ez duten parte-hartzaileen ehunekoa da altuena.


Euskara maiztasun handiz erabiltzen da Facebooken eta Twitterren, eta egunero erabiltzen dutenen ehunekoa aipagarria da. Instagram eta Google+ sareetan goian aipatutakoetan baino maiztasun txikiagoarekin erabiltzen da; LinkedIn-en, berriz, oso noizean behin edo gutxitan erabiltzen da euskara.

### Inoiz erabiltzen duzu euskara sare sozial hauetan?



21. irudia. Euskararen erabilera sare sozialetan.

### Zein maiztasunekin erabiltzen duzu euskara sare sozial hauetan?



22. irudia. Euskararen erabilera-maiztasuna sare sozialetan.

### 4.3. Euskaraz lokalizatutako zerbitzu/interfaze digitalak


Euskal hiztun gehienek badakite inkestaren atal honetan aipatutako zerbitzuak euskaraz ere erabilgarri daudela. Zerbitzu ezagunenak onlineko egunkariak eta albisteak dira, eta, ondoren, administrazio publikoa eta eBanking. Parte-hartzaileen iritziz, euskaraz gutxien eskuratu daitezkeen zerbitzuak merkataritza elektronikoaren arlokoak dira.

Sistema eragileei eta softwareari dagokienez, parte-hartzaile gehienek bazekiten Windows, Firefox eta Microsoft Officeren euskarazko bertsioak badaudela, eta, maila apalagoan, Android, Linux eta LibreOffice euskaraz badaudela ere bai. Parte-hartzaileen erantzunen arabera, badirudi jendeak ez dituela hainbeste ezagutzen euskarazko beste softwareak.

Sistema horiek euskaraz bazeuden galdetzean baiezkoa erantzun zuten parte-hartzaile gehienek Firefox eta LibreOffice euskaraz erabiltzen dituzte; beste zerbitzu guztiak euskaraz erabiltzen dituzte parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok. Aipagarria da MacOSX eta iOS ezin direla eskuratu euskaraz, nahiz eta parte-hartzaile batzuek euskaraz badaudela erantzun duten.


Euskaraz erabilgarri dauden baliabide digitalei dagokienez, parte-hartzaile gehienek hiztegi elebidunak eta elebakarrak ezagutzen dituzte, eta, maila apalagoan, ortografia-zuzentzaileak eta itzulpen automatikoa ere bai. Parte-hartzaile batzuek ez dakite ahoskera eta hizkuntza identifikatzeko zerbitzuen berri.

#### Zuk dakizula, zerbitzu hauetatik zein erabil daitezke euskaraz?




23. irudia. Euskarazko Internet-zerbitzuak.

**Badakizu software hauetakoren bat euskaraz erabil daitekeen?**



24. irudia. Softwarea euskaraz.

**Baietz erantzun baduzu, euskara aukeratu ohi duzu lehenengo aukera gisa?**



25. irudia. Euskarazko softwarearen erabilera.

## 5. Ondorioak

Inkestaren emaitzek erakusten dute euskara digitalki sasoian dagoen hizkuntza bat dela eta modu aktiboan erabiltzen dela. Parte-hartzaileek hizkuntza-gaitasun handia dute, eta ondo ezagutzen dituzte eskura dituzten tresna eta baliabide digitalak. Hala ere, inkestaren hasieran aipatu dugunez, parte-hartzaileen profilak ez ditu ondo islatzen hiztunen profil soziolinguistiko guztiak. Inkestan parte hartu dutenen adinari dagokionez, gehienek 30 urtetik gora dituzte. Mundu digitalean 15-34 urte-bitarteko jendea izan ohi da populazio aktiboena<sup>1</sup>, eta, beraz, kontuan hartu behar dugu gerta daitekeela talde horrek inkesta honetan behar bezalako ordezkariarik ez izatea.

Parte-hartzaileen kopuru handi batek adierazi du euskara etengabe erabili ohi duela Interneten (webguneak, komunikazio elektronikoa, blogak, Wikipedia, etab.). Hori sare sozialei ere aplikatzen zaie, bereziki Facebook eta Twitterri, euskarazko jarduna nahiko nabarmena baita haietan. Horrelako sareak gehienbat erregistro informalekin lotzen direnez, euskara eguneroko online komunikazioan —idatzizkoa nahiz hitzezkoa— erabilgarria eta erabilia den hizkuntza gisa ikusten da eta, zalantzarik gabe, horrek erakusten du euskara alde horretatik indartsu dagoela. Hori faktore garrantzitsua da hizkuntza baten biziraupen digitalerako. Hala eta guztiz ere, euskara ez da hainbeste erabiltzen negoziara eta enplegura bideratutako LinkedIn sare sozialean. Euskararen egoeraren adierazgarri izan daiteke hori; izan ere, erabilera hazi egin da familiaren ingurunean eta ingurune informalean, baina ahalegin handiagoa egin behar da testuinguru profesional eta formalean.

Euskarara lokalizatutako zerbitzu eta interfaze digitalei dagokienez, azpimarratu behar da inkestako parte-hartzaile gehienek badakitela aipaturiko zerbitzuen euskarazko bertsioak badaudela. Hala ere, badaudela jakin arren, parte-hartzaile batzuek ez dute euskara erabiltzen beren gailu, aplikazio edo softwareetan. Arrazoi asko egon daitezke hori gertatzeko, baina inkesta honen zerbitzu esaten digu euskal hiztunen ohitura digitalen inguruan; izan ere, parte-hartzaileen ia heren batek uste du gaztelaniazko tresnak erabiltzea errazagoa dela; euskarazko softwarea aurkitu eta instalatzeko era ez dela beste hizkuntzetan bezain erraza; eta, horren ondorioz, erabiltzaileak ahalegin handiagoa egin behar duela.

Parte-hartzaile batzuek euskarazko baliabide guztiak zerrendatzen dituen eta erabiltzaileei horiek deskargatzeko aukera ematen dien webgune baten premia sumatzen dute. Horrez gain, aipatu dute euskaraz dauden zerbitzuei eta interfazei buruzko informazioa zabaltzeko beharra dagoela, bereziki gazteen artean.

Azkenik, aipatu nahiko genuke euskarazko entretenimenduko produktu gehiago eskatzen dituela jendeak eta, bereziki, jende gazteari bideratutakoak. Erabiltzaile gehienek beste hizkuntzetan kontsumitzen dituzte ordenagailuko edo mugikorreko jokoak, horiek euskaraz aurkitzea zailxeagoa delako.

---

1 <https://www.statista.com/statistics/272365/age-distribution-of-internet-users-worldwide/>



## 6. Esteka esanguratsuak

### Gehien aipatzen diren Facebookeko kontuak:

Berria  
Argia  
Naiz  
Elhuyar  
ZuZeu  
Sustatu  
EiTB  
UEU-Udako Euskal Unibertsitatea  
EHE-Euskal Herrian Euskaraz  
Azkue Fundazioa  
AEK  
Berri Txarrak  
Topatu  
ehbildu  
Mr Euskaldun  
Donostiako piratak  
Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua  
UPV/EHU  
Euskararen Lagunak

### Gehien aipatzen diren Twitterreko kontuak:

Berria.eus  
ARGIA  
zuzeu  
Sustatu Albisteak  
naiz:  
Elhuyar  
Gorka Bereziartua  
UEU  
P. Huarte Larraburu  
EH Bildu  
Azkue Fundazioa  
Elhuyar Hizkuntza

Luistxo Fernandez  
Maite Goñi Eizmendi  
esaerak  
Zientzia Kaiera  
Lander Arbelaitz  
eitb.eus  
lander garro  
Gorka Julio

### Gehien aipatzen diren komunikazioko foroak:

Sustatu  
ZUZEU

### Gehien aipatzen diren zerbitzu digitalak:

Berria  
Laboral Kutxa  
Osakidetza  
Kutxabank  
Argia  
Google  
Azpigituluak euskaraz  
Sustatu  
Irekia: Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco  
naiz:  
EiTB  
euskadi.eus  
Orain Gipuzkoa  
Hezkuntza Saila - Eusko Jaurlaritza  
ZUZEU  
Badok  
Vueling  
YouTube  
Donostia Kultura  
Eroski

## 7. Bibliografia

Soziolinguistika Klusterra (2011). *Nerabeak, Interneteko Sare Sozialak eta Euskara*.



## Erantzuleen ohar batzuk

*"Irakaslea naiz eta gazteek baliabide asko ez dituzte ezagutzen. Hedapen premia handia dago hauenean".*

*"Euskara irakasle edo euskaldun zahar askok ez dituzte kutzazaina, mugikorra, ordenagailua... euskaraz erabiltzen. Askok euskara aldarrikatzen dute eta haren aldekoak direla esaten dute, baina gero ez dute interes handirik jartzen eguneroko kontuak euskaratzten. Horrek eragina du, enpresek, egiten den erabilera eskasa ikusita, ez dituztelako euren kabuz euskaraz zerbitzuak eskaintzen".*

*"Aisialdirako orriak beharko dira EUSKARAZ baita jokoak ere".*

*"Nerabeentzako modernitate gehiagoko ekintzak, aplikazioan, telebistaioak etab. behar doguz, "saltzen" deustien guztia gaztelaniaz edo ingelesez dagoalako".*

*"iOS eta mac OS euskaraz mesedez!"*

*"Erabili izan ahal ditudan azken Android bertsioetan ez dut euskara topatu. Honek kezkatzen nau gehien, mugikorrek (eta tabletek ere) pisu handia baitute gaur egungo gizartean, batez ere gazteen egunerokoan, eta horrelako euskarrietan euskara ez edukitzea oso kaltegarria iruditzen zait hizkuntzaren normalizaziorako bidean".*

*"Hizkuntza gizartearen beharretara egokitu behar da eta teknologiak eta mundu digitalak hainbesteko indarra duen horretan euskara ere muturra sartzen ari da eta garapen horretan jarraitu behar dugu".*